

MAYO 2021 MAIATZA

DEFEN

SORAS



AURKEZPENA

Kaixo eta ongi etorri urtean zehar argitaratuko ditugun buletin serie honen lehenengo atalera. Hasi baino lehen, eskerrik asko hau irakurtzeko denbora hartzeagatik, gustukoa izatea espero dugu. hezkontza@lumaltik.org posta elektronikora idatz dezakezu iruzkinen bat baldin baduzu, kontuan hartuko ditugu. Buletin hau #OihartzunTalka kanpainaren parte da, Lumaltik Herriaketik bultzatua, gizartea lurraldearen defendatzaileen egoeraz jabetzeko. Hemen elkarrizketak, artikulu interesgarriak eta feminismo, zaintza, gure gorputzen defentsa eta ingurugiroari buruzko artikuluak aurkituko dituzu. Gaiarekin zerikusia duten aktibitateen eta ekitaldien albisteak ere aurkituko dituzu.

Aurkibidea

Oihartzun talka (kanpainaren irteera)	1-2 orrialdeak
Reyna Tercerori elkarrizketa (nikaraguako feminista)	3-4 orrialdeak
Dalila Arguetari elkarrizketa (hondurasko defendatzailea)	5-6 orrialdeak
Agenda	7 orrialdea
#M8: Pandemiak markatutako M8 baina, mugarik gabekoa	8-9 orrialdeak
Albisteak	10 orrialdea
Bira zapatista	11-12 orrialdeak

OIHARTZUN TALKA

Defendatzaileak eskubide indibidual eta kolektiboen alde lan egiten duten emakumeak dira, planetaren eta ondasun komuneren alde borroka egiten dutenak. Lurraldearen defentsan eginiko lan horien ondorioz, uneoro arrisku eta mehatxupearan bizi diren emakumeak dira.

Aldarrikatzen dugun lurraldearen defentsaren kontzeptuak esparru zabalago bat hartzen du bere baitan, gorputz-lurraldea bezalako kontzeptua ere barneratzen dituena, eta herri indigenen Ongi Bizitzearekin guztiz harremanatuta dagoena. Feminismo komunitarioen kasuan, lurraldearen eta emakumeen gorputzaren arteko paralelismo hori funtsezkoa da: biak izan dira gerra ospil, biak arpilatuak eta usurpatuak izan dira historian zehar. Ez da kasualitate hutsa kapitalismoak, heteropatriarkatuak eta kolonialismoak osatzen duten triada horren aurrean, emakumeak izatea lehen leerroan daudenak. Puntu horretan, feminismoak eta ingurumen mugimenduek bat egiten dute.

Ez da lurralde askerik izango bertan zapalkuntzak ematen diren bitartean, ez soilik natura eta ondasun komuneren kasuan, baizik eta lurralde horietan bizi diren izaki guztiongan ere. Gorputzen gozamen askerik ez badago, LGBTBIQ+ eskubideak ukatuak badira, ingurumen osasungarririk ez badugu eta natura eta pertsonen gorputzak suntsitzen dituzten megaproiektuak jarraitu ezker, ezin izango dira sekula bizi-proiektu osoak eta iraunkorrak ezarri.

Naturaren harraparitzaren eta identitate ez-hegemonikoen diskriminazioaren arteko lotura oso argia da, bai pertsona arrazializatuen kasuan bai eta hetereoarautu gabeen kasuan ere (lesbiana, gay, trans, ez-bitarrak). Sistema honek, lurraldeak (lurra eta gorputzak) libreki erabiltzea eta gozatzea defendatzen ditu, baina gizon zuri heterosexuaren eredu kontuan hartuta, eta horren onurarako betiere. Besteekiko dituen pribilegioak baliatuz, botere eta menderatze harreman bat ezartzen da eraldaketa sozialaren aldeko apustua eta eredu hegemonikotik at kokatzen diren gorputz eta nortasun ezberdin guztiekiko.

Gaur egun, Erdialdeko Amerikan, lurraldea defendatzearen aldeko apustua egitea arriskutsua izaten jarraitzen du. Defendatzaileek difamazio eta eraso kanpainei aurre egin behar diete egunero, baita agintarien kriminalizatzeko saiakeriei edota inolako funtsik gabeko prozesu penalei ere. Emakume defendatzaileen kasuan, gainera, beste indarkeria mota bati egin behar diete aurre: sexu erasoak eta seme-alaben aurkako mehatxuak, beren lana bertan behera utzi dezaten. Hau da, beren aktibismoagatik ez ezik, emakume izate hutsagatik ere jazartzen dituzte.

Giza Eskubideen aldeko erakundeek argitaratutako "Defender en tiempos del COVID" txostenaren arabera, Erdialdeko Amerikan eskubideak defendatzeko baldintzek eta defendatzaileen bizi-baldintzek okerrera egin dute COVID-19aren agerpenarekin. Pandemiaren aurreko zailtasunak nabarmendu egin dira eta, horrekin batera, erasoak ere areagotu egin dira. Lurraldearen inbasioak, ekintza armatuak eta eraso hilgarriak mantendu dira lurraldea defendatzen duten komunitateen kontra. Mugikortasun murrizketek eragin handia izan dute mugimendu feminista, internazionalista eta ekologistaren nazioarteko sareetan. Gainera, komunikabide tradizionaletan ohikoa den ikusezintasuna nabarmendu egin da pandemia garaian, eta agenda mediatikotik desagerrarazi egin dira megaproiektu edo eskubide urraketen inguruko problematikak, aurretik ere baztertua zeudenak, alegia.

#OihartzunTalka kanpainaren bidez, testuinguru basati hori salatu nahi dugu, Erdialdeko Amerikako defendatzaileen erresistentzia prozesuak ikusaraziz. Honekin, gure aletxoak ere jarri nahi dugu, defendatzaileak eta haien prozesu komunitarioak ostrazismora bultzatzen dituen hesi mediatikoa haustuz, mundu justu baterako oinarriak eraikitzen ari direnak. Errealitate horiek ezagutzeak kontzientzia kritikoa sortzen lagundu dezan nahi dugu, gizartea eraldatzeko prozesuak indartuz: feminismoa, justizia, indarkeriarik gabeko erresistentzia eta elkartasuna.



Reyna Tercerori elkarrizketa

Nikaraguako feminista, aktibista EH Feministak Nika elkartean



Nola deskribatuko zenuke zure burua?

Feminista naiz, aktibista naiz, eta etengabeko eraberritze prozesu batean pertsonen eskubideen defentsari dagokionez; izan ere, egunero errealitate berriekin egiten baitugu topo, borroka berrien beharra dutenak.

Eta noiz hasi zenuen aktibismo hori?

Gaur egun, txikitan ikusi eta ezagutu ninduen batek, ez luke sinistuko orain naizen emakumea izatera iritsi nintekeenik, hainbat egitasmoetan parte hartzeko gai naizenik, beti nahiko barnerakoia izan naizelako. Ni, Nikaraguako iraultzaren ondorioz hasi nintzen Luis Alfonso Velázquez Flores Gazte Mugimenduan (MILAF), Nikaraguan "haurtzaroaren eta nerabezararen kodea" onartzeke zegoen une hartan. Hortik aurrera ez naiz gelditu, espazio desberdinetan parte hartzen izan naiz une oro, baina uste dut nire hastapenak MILAF-i zor dizkiodala. Barnetegietara joaten ginen, nire lehen irteerak ziren horiek. Nerabezarora heltzean, gobernuaren pareko beste esparru batzuetan parte hartzen hasten zara eta ni, adibidez, gazteria feministan hasi nintzen.

Zeintzuk izan dira Nikaraguako kolektibo feministen aldarrikapen nagusiak?

Erakunde gisa, oro har, urratu izan dizkiguten eskubide guztiak aldarrikatu ditugu. Esate baterako, genero-indarkeriaren aurka edota abortuaren despenalizazioa alde borrokatu gara, 2006an berriro ere zigortu zutena, gobernuak eta Elizak sinatutako itun baten ondorioz. Kaleak hartu ahal izatea izan da beste aldarrikapen nagusienetako bat, izan ere, han guztiz debekatuta eta zentsuratuta baitago.

Duela urte batzuk, Nikaraguan genero-ekitatearen %50aren eztabaidari heldu zaió berriz ere. Nazioarte mailan, kargu publikoetan emakume eta gizonezkoen %50a daudela aurkezten dute, baina ez da egia eta, egonez gero, izenez baino ez daude, ez baitutelako inolako erantzukizunik erabakiak hartzerako unean.

Borroka kolektiboak izan dira mugimendu feministaren oinarria, zure erakundea edozein izanda ere. Kasu horretan, bai elkarrengana areago bildu garela, betiere emakumeen eskubideen aldarrikapenarekin zerikusia duten gaien inguruan hausnartzeko: gorputzaren gaineko boterea, beren autonomia...

Zeintzuk dira burutzen ari zareten erresistentzia-mekanismoak?

Nikaraguan, duela urte batzuetatik hona, mugimendu feministak jarrera nahiko tinkoa mantendu izan du. Gobernuarekin itunik edota inolako negoziatorik onartu ez duen gizarte-mugimendu bakarra izan dela esango nuke. (...) 2018tik, herrialdean altxamendu garrantzitsu bat eman zenetik, mugimendu feminista egoera arriskutsuan geratu da. Feminista asko erbestera joan behar izan dira, eta giza eskubideen aldeko erakundeen ia %80 itxi dira. Nire ustez, batasun hori lortzen saiatu behar dugu, lana oinarrietatik eta, zorritzarrez, nahiko modu klandestinoan egiten saiatuz, emakume horiek babesik gabe gera ez daitezen batik bat.

Orain Euskal Herrian bizi zarela, nola parte hartzen duzu eta nola antolatzen zarete Nikaraguan jarraitzen duten feministekin?

EH Feministak Nika eta Red de Mujeres Racializadas de EH kolektiboetan parte naiz. Hemendik bertatik ordezkari bilakatu gara, gure erakundea Nikaraguako mugimendu feministaren ordezkaria da hain zuzen.

Gu, esaterako, etengabe ari gara salaketa-ekintzak bultzatzen sare sozialen bidez, hemendik ere egin luzatu dezakeguna. Horixe da kanpoan gaudenoi dagokiguna momentuz. Hemen askatasun gehiago dugu, gure kideek duten askatasun eza hori salatzeke eta eskatzeko, haiek erabat bakarrik daudelako han.

Euskal Herrian bizi den emakume emigrante gisa, zeintzuk izan dira aurre egin beharreko oztopo nagusiak?

Zailena egokitzea izan da: talka kulturala, denbora, espazioak... gauza asko dira. Zure bizitza zenuen toki bat uztea, norbait zinen leku batean, eta hona heldu eta inor ez zarela konturatzea, gogorra izan da ere niretzat. Benetan horrela delako, nahiz eta herrialde abegitsu bat dela saldu nahi izan den. Pertsona, emakume, langile edo zergadun gisa ezagutzen ez zaituzten leku batera iristea da.

Aktibismoaren kasuan ere, zaila izan da aldaketa. Ibilbide eta esperientzia bat dugu feminismoari eta aktibismoari dagokienez, hemen aitortzen ez zaiguna. Latinoamerikako mugimendu garrantzitsu eta ezagunenetako bat izanda ere, zaila da espazio horiek aitortzea edota onartzea hemen (...) elkarrekin lanean egon gaitzkeela jakin beharko genuke, askotan aldarrikatu izan den feminismoa hori benetan eraikiz batera.

Zer-nolako eragina izan du COVID-19ak zuen erakundearen lanean?

Guztion antzera, nik uste. Jakin bagenekien bizi genuen errealitatea nolakoa zen, baina espero ez genuen testuinguru gordin eta krudel berri baten aurrean kokatu gaitu. Pandemiaren ondorioz, emakume nikaraguarrek bizi duten benetako egoera prekarioei aurre egitea egokitu zitzaigun askori. Horrek, arrakala-sozial hori ikusaraztera eta salatzerako bultzatu gintuen.

“Etxean geratu” kanpaina bultzatu zen, adibidez. Baina noski, etxean geratu etxe bat duena, ezta? Hori ez da posible neskame batentzat, esaterako. Lan-etxe horretatik ateratzeko aukera baldin badu, igandean ordu pare bat izango dira soilik. Kasu konkretu horretan, kaleratu egin zuten eta ez zeukan nora joan, adibidez.

Zer nahi genuen, zer egiten ari ginen eta hartu beharreko norabidea berriro ere planteatzen lagundu gintuen. Konfinamenduan zehar, asistentzialistak bihurtu ginen neurri batean behintzat, baina egoera berezi horrek bultzatuta, momentuan hartan egin behar genuena zen. Gero, bigarren etapa batera pasa ginen: emakumeei autokudeatzen laguntzea. Baliabideak hobeto optimizatzeko, atez ate aritzeko unean, haien buruak eskubideen subjektu gisa aitortzeko unean eta oso garrantzitsua zen, era berean, eskura zuten guztia haien onurarako erabiltzea (...) Ez zegoela jarduteko beste modu bat birplanteatzea, bizitzen ari ginen krisi eta arrakala-sozial horren aurrean gure buruak beste posizio batean kokatu behar genituen.

Amaitzeko, zer itxaropen dituzue datozen bi urteetarako?

Elkarte gisa eratu nahi gara, gero eta feministagoak izango diren neska eta mutil gaztez osatutako talde handi eta anitz batekin egiten dugu amets, emakume helduekin ere, etortzear dugun errealitate berriarentzat. Nikaraguako kapitulu feminista bat kudeatzea gustatuko litzaidake, Nikaraguan bertan, eta Euskal Herriko gauzak egitea haiekiko lankidetzarekin, erregimena behingoz desagertzean...

Dalila Arguetari elkarrizketa

Hondurasko Defendatzailea, Guapinoleko erresistentzia komunitatean



Nola deskribatuko zenuke zure burua?

Defendatzaile gisa deskribatzen dut neure burua, naturaren eskubideak edo pertsonen eskubideak defendatzen dituen edozein pertsona defendatzailea da; eta aktibista ere banaiz, aktibismo hori berarekin eramaten duen pertsona batek, erbestean edo bere lurraldean bertan, borroka bultzatzen lagunduko duelako edozein lekuan izanda ere.

Noiz eta nola hasi zinen defendatzaile gisa aktibismoa egiten?

Sarritan konturatu gabe hasten zara, nik uste. Gure kasuan, gure komunitate eta mendietara meatzaritza-proiektu hura heltzean izan zen, hor hasi ginen antolatzen eta kalitatezko ura izateko eskubidea eskatzen. Han hasi ginen ere emakume gisa antolatzen, ahotsa altxatzen eta elkarrekin borrokatzen lurra defentsan.

Aktibista eta lurraldearen defendatzaile gisa, zeintzuk izan dira zuen aldarrikapen nagusiak?

Gure aldarrikapen nagusiak egunero urratuak izaten ari diren eskubide horietara bideratuta izango dira beti: lurraldearen eta gure gorputzen defentsa, sexu eta ugalketa eskubideak, LGBT+ kolektiboaren eskubideak eta abar. Honduras, esaterako, herrialderik gogorrenetakoa da lesbiana ala gay izateko, edota gizartean hegemoniko diren ideia ideologiko eta erlijioso berberekin bat ez datorren edozein sexu-orientazio izateko.

Zeintzuk dira burutzen ari zareten erresistentzia-mekanismoak?

Guztion artean adostea, senidetzea, eta antolatzea koordinatzeko eta babesteko helburuarekin. Testuingurua zein den ulertzea, protesta baketsuak bideratzeko eta gure egoera aditzera emateko erabil ditzakegun tresnarik egokienak zeintzuk diren jakiteko.

Zer-nolako ondorioak ditu komunitate indigenentzat mega-proiektuak martxan jartzea euren lurraldeetan eta zeintzuk dira horri aurre egiteko burutzen ari diren erresistentzia-estrategiak?

Gobernua bera da mega-proiektu horiek inposatzen dituen, gero beste zenbait akterek babesten dituztenak. Gure komunitateen espoliazioak, jende askoren lekualdatze behartuak, naturarentzat zein pertsonentzat kalte-galerak baino ez dituztelako suposatzen, defendatzaile eta aktibisten aurkako kriminalizazioa, jazarpena, eroskeria... horiek guztiak dira mega-proiektu dakarten ondorio nagusiak. Proiektu hauei muxu ematen zaie edo erail egiten zaituzte. Proiektu horien aurka ahotsa altxatzen dugunoi identifikatu egiten gaituzte, eta jazarpen kanpaina hasten da orduan. Zenbait lagun espetxean daude, epaiketaren zain, eta ez da oraindik inolako ebazpenik eman. Beste batek 2 urte zeramatzan eta leporatzen zizkieten delituetatik atzo bertan absolbitu zuten. Familiak suntsitzea, heriotzak, kartzelaratzekoak, bipiltzeak, migrazio masiboak, gure komunitateetatik kanpo botatzea eta abar lirarteke ere beste ondorio batzuk.

Zer gertatu da zure komunitatean mega-proiektuarekin?

Komunitateak borrokan jarraitzen du, eta 2018tik kaleetan eta martxetan dago presente. 2018an egin genuen kanpaleku batean, 89 egun eman genituen makinena lana eragozten, gure mendien suntsitzea bertan behera geldiarazten. Horren ondorioz, 8 defendatzaile daude preso eta ni erbestean nago hemen, beste kide batzuk ere Estatu Batuetara migratu behar izan dute. Familien desegitea ematen da, preso politiko horien emazteak eta seme-alabak haiengandik oso urrun daude. Guzti hori gure mendietara ekartzen duten kutsadura eta ingurumen inpaktuaz gain, noski.

Euskal Herrian bizi den emakume emigrante gisa, zeintzuk izan dira aurre egin behar izan dituzun oztopo nagusiak?

Hegazkinetik jaisten zarenean bertan konturatzen zara ez zarela inor, ez baituzu lanerako edo ezertarako aukera eskaintzen dizun inolako dokumenturik. Zure pasaporteak turista gisa etortzeko aukera eskaintzen dizu soilik, 3 hilabeteetarako balio duena, eta, horren ondoren, hemen izateko baimena aitortzen zaizunean eta modu irregularrean geratzen zarenean, lan egiteko aukerarik gabe geratzen hasten zara eta ezin dezakezu pisurik alokatu ere. Mila ate ixten dizkizute, eta Atzerriartasun Bulegoaren bidez zure egoera legezztatzen saiatzen zarenean, milaka oztopo jartzen dizkizute. Hiru urte igaro bihar dituzu hemen naziotasuna eta AIZ (Atzeritarren Nortasun Zenbakia) txartela eskuratzeko. Baina horrekin ez dira arazoak oztopoak desagertzen, inork ez dizulako inolako lan kontraturik egiten eta kontratu hori behar duzu zenbait gauza eskatzerako unean exijitzen dizutelako. Laburbilduz, hiru urtez mirariak egiten aritu behar gara biziraun ahal izateko.

Orain Euskal Herrian bizi zarela, zer nolako proposamenak dituzue defendatzaileen lana laguntzeko hemendik bertatik?

Gure borroka ezagutzera ematea gustatuko litzaidake, gure pachamamaren (Ama Lurra) alde zer egiten ari garen berriz ere hausnar dezagun. Modu globalean pentsatu behar dugu, baina tokian-tokian jardun. Antzeman dut aktibismo indar izugarria dagoela eta erresistentzia handia baita ere. Geure burua ezagutzeko espazioak sortzen ari gara, begietara begiratzeko eta nola gauden eta zerk kezkatzen gaituen galdetzeko: nola sentitzen zara? Elkar besarkatzea edota hitzik esan gabe gure barneak aska ditzagun espazioak, aktibismoak asko kargatu egiten zaituelako.

Zer-nolako eragina izan du COVID-19ak zuen erakundearen lanean?

Eragin handia izan du txarrerako, dudarik gabe. Gobernuak edozer gauza aprobetxatzen dute onura ateratzeko, eta COVID-19a adibide garbia izan da. Etekin ekonomiko handiak atera dituzte pilula sorten salerosteekin, eta baita maskarak loteka erostearekin ere, denei etekina ateratzeko aprobetxatzen dute, txertoen kasua dugu azken adibide ere. Han 8.000 lempiraren truke saltzen ari direla entzun dut, herriak ez du dirurik eta bizirauten saiatzen ari da, izugarritzko prekaritatean bizi den herrialdea da, narkoestatu batek gobernatzen gaituelako, eta osasun-zentroek jada ez dute botikarik, instalazioak oso prekarioak dira.

Amaitzeko, zer itxaropen dituzue datozen bi urteetarako?

Guk elkartzen eta aliantza sare berriak sortzen jarraitu dugu; erresistentzian mantenduko gara, gure komunitate eta erakundearen egoerak ikusarazten jarraitu dugu etengabe. Har-laber, zaintza-espazioak sortzen jarraituko dugu, guretzat lehentasuna dutenak.

Agenda

“Defendatzaile Erdiamerikarrak” Erakusketa ————— **Uztailak 5etik irailak 30era**
Okendo Kultur Etxean,
Donostia

“Sentipen eta sexualitateak: gure gorputzak lehen defentsa lurralde bezala” Tailerrak, 2021eko ekaina

“zaintzarako denbora” Tailerra ————— **Basauri (Marienea): ekainak 1**

“gure gorputzak eta sexualitateak(ber) ezagutzen” ————— **Basauri (Marienea): ekainak 8**
Tailerra

“Jakitura haziak ereiten” Elkartrukea ————— **Artea (Basoa):ekainak 27**

INTERCAMBIO ————— ELKARTRUKEA

SEMBRANDO SEMILLAS DE SABIDURÍA

JAKITURIA HAZIAK EREITEN

DOMINGO 27 DE JUNIO EKAINAK 27 IGANDEA ⌚ 10:00 → 16:00

📍 **BASOA, CASA DE LAS DEFENSORAS. ARTEA, VALLE DE ARRATIA**

PLAZA MUGATUAK AFORO LIMITADO

MÁS INFORMACIÓN E INSCRIPCIONES INFORMAZIO GEHIAGO ETA IZEN-EMATEA
✉ HEZKUNTZA@LUMALTIK.ORG ☎ 640 65 67 80

TALLERES ————— TAILERRAK

SENTIRES Y SEXUALIDADES

CUIDAR NUESTROS CUERPOS COMO PRIMER TERRITORIO DE DEFENSA
SENTIMENAK ETA SEXUALITATEAK GURE GORPUTZAK ZAINDU DEFENTSARAKO LEHEN LURRALDE GISA

📍 **MARIENEA KAREAGA GOIKOA KALEA, 54 BASAURI**

“Tiempo para el cuidado”
“ZAINTZARAKO DENBORA”

MARTES 1 DE JUNIO EKAINAK 1 ASTEARTEA
⌚ 16:00 → 20:00
DINAMIZA DINAMIZATZALEA **Saioa Hernández**

“(Re) Conociendo nuestros cuerpos y sexualidades”
“GURE GORPUTZAK ETA SEXUALITATEAK (BER) EZAGUTZEN”

MARTES 8 DE JUNIO EKAINAK 8 ASTEARTEA
⌚ 16:00 → 20:00
DINAMIZA DINAMIZATZALEA **Saioa Hernández**

📍 PLAZA MUGATUAK AFORO LIMITADO

MÁS INFORMACIÓN E INSCRIPCIONES INFORMAZIO GEHIAGO ETA IZEN-EMATEA
✉ HEZKUNTZA@LUMALTIK.ORG ☎ 640 65 67 80

lumaltik **Ecuador ETXEA** **Bizkaia**



#M8: Pandemiak markatutako M8 baina, mugarik gabekoa

Nahiz eta aurtengo martxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko Eguna, luzaroan zailenetakoa izan, feministok berriro ere aldarrikatu nahi izan dugu gure egunerokotasuna baldintzatzen duten logika matxista, klasista eta arrazistak gainditzen dituzten pertsona guztientzat bizitza duin bat merezi dugula. Zaintzak unibertsalizatu eta kolektibatuko dituen gizarte bat nahi dugu, horiek emakumeen erantzukizun bakarra izan ez daitezen, eta muturreko esploazio-baldintzetan bilakatu ez daitezen. Ozen oihukatu egin nahi dugu inor ez dela ilegala, migrazio-legeek, kontrolek, aukera ezak eta gure lanen prekarizazioak etengabe eraso egiten gaituztela, kapitalismoa eta patriarkatua aliantza kriminal beraren parte direla eta gure eskubideak urratzen jarraitzen dituztela. Gure buruak bizirik nahi ditugu, aske eta libre!

Gobernuak markatutako neurriei jarraituz, gure auzoak, kaleak eta plazak kolore morez jantzi ziren, irudimenez betetako kontzentrazio eta adierazpenetan, distantzia sozialak mantenduz une oro eta osasun-neurriak betez kutsatzeko arriskuak ekiditeko. Hala ere, denak ezin izan ginen kalera atera. Katalunian, Valentzian eta Hego Euskal Herrian elkarretaratzeak baimendu zituzten bitartean, Madrilen Justizia Auzitegi Nagusiak deialdien debekuari eutsi zion.

Euskal Herriko hiriburuetan

Hiriburu guztietan, milaka emakume atera ziren arratsaldean deitutako manifestazio jendetsuetara parte hartzera. Talde feministetako eta sindikatu etako boluntarioek batera lan egin zuten martxak baketsuak izan zitezten eta momentu oro segurtasun protokoloak errespetatu zitezten.

Udalerrri bakoitza kontuan hartuta, 180 mobilizazio baino gehiago deitu ziren goizetik hasita. Bilbon, elkarretaratzeak antolatu ziren hiriko hainbat tokitan: Atzeritartasun Bulegoaren aurrean, bizimodu hobe baten bila migratzen dugunok erailtzen gaituzten harresiak eta mugaldea salatze eta, gainera, iristea lortzen baldin badugu, aukera hori guztiz eragozten digun atzeritartasun-lege krudel batekin dugu topo. Ondoren, udaletxe aurrera joan ginen, pentsio eta zaintza publiko eta eskuragarriak eskatzeko. Azkenik, Iberdrola dorrearen azpian izan ginen, pobrezia energetikoaren desagerpena eskatuz.

#Defensoras pankartak ikusi ahal izan genituen han, Iralan eta Portun batera eginak.



Ecuador Eteak utzitako irudia

Munduan zehar

Latinoamerikan zehar ere emakumeen papera aldarrikatu zen hainbat puntutan, garrantzia ez ezik, ahaztu ezin diren borroka eta aldarrikapenak ere erakutsiz. Hondurasen, adibidez, #BertaCaceres-en feminizidiotik bost urtera, "Justizia eskatu zuten Berta, Keyla, Margarita eta Hondurasen eraildako guztientzat", emakumeen eta neskatxen aurkako indarkeria oraindik ere egunerokotasunaren parte direla salatuz. Txilen, bestalde, Anamuri elkarteak mobilizazio egunean parte hartu zuen beste erakunde feminista batzuekin batera, "Piñeira kanpoan" lelopean. Gainera, ostegunean, hilaren 11n, "Elikagaien Soberaniaren aldeko borroka eta erresistentziak" Fororako deialdia egin zen. M8 honek utzi zizkigun adibide ugariekin amaitzeko, Guatemalara aipatu beharra dago, non Conavigua edo CUC bezalako erakundeek Giza Eskubideen alde borrokatzen diren defendatzaileen kontrako kriminalizazioa bertan behera uztea eskatu zuten, eta baita justizia eskatu bahiketa, bortxaketa eta erailketen biktima diren haur, gazte eta emakumeentzat ere. Historian zehar eskubide-berdintasuna eskatzen borrokatu izan diren amonak ere gogoratu zituzten.

Albisteak

#JusticiaParaBerta Erailketaren 5. urteurrena

Berta Cáceresen, lenca herriko aktibista hondurastarra, erailketaren bosgarren urteurrena bete zen martxoaren 2an, COPINH erakundearen sortzaileetako bat izan zena. Hainbat ingurumen proiekturen aurka borrokatu zen eta, 2009an, Manuel Zelayaren estatu kolpearen aurkako protestak ere bultzatu zituen. Mehatxu eta jazarpen bortitzeko urteak sufritu ondoren, 2016an bere etxean zegoela hil zuten. Hortik aurrera, haren heriotza oroitzen dugu urtero, emakume gisa eta lurraldearen defentsaren alde eginiko borroka ahaztu ez dadin. Aurten, elkartasun ekimen gisa, sare sozialak mezu eta argazkiz bete ziren #JusticiaParaBerta lelopean.

Gizarte Zibilak defendatzaileak Mexikon bizi duten egoera salatu du NBEren aurrean

“Hacia la Erradicación de asesinatos y amenazas contra personas defensoras de Derechos Humanos en México” ekitaldiaz baliatuz, online egin zena martxoaren 11n, Mary Lawlor NBEko Errelatore Bereziak erakunde zibil eta elkarte diplomatiko mexikarrekin zuzenean hitz egiteko aukera izan zuen. Mexikon defendatzaileen aurkako hilketak eta mehatxuak behingoz desagerraraztea izan zen gai nagusia. Bertan, 2020an soilik, 19 defendatzaile hil zituzten. Ekitaldian zehar emandako hainbat hitzaldietan defendatzaile indigenek Mexikon bizi duten egoera arriskutsua eta erailketen inguruko ikerketa eza salatu egin zen ere. Errelatore Bereziaren paperaren garrantzia eta honek gizarte zibilarekin zuen hurbileko lana azpimarratu ziren.

Errelatoreak Mexikoko gizarte zibileko erakundeen lana eta txostena egiteko egindako ekarpenak goraiatu zituen, eta defendatzaileen sareek behar bezalako babes bermatzeko duten garrantzia ere aitortu zuen, hauen lanari esker eraldaketa sakona lortzea posible dela azpimarratuz.

Etorkinak, baztertuak, ijitoak, afrikarrak, magrebtarrak... denok batera arrazakeriaren aurka borrokan

Martxoaren 21ean, Arrazakeriaren aurkako nazioarteko Eguna, Bizkaiko Plataforma Abierta de Colectivos Inmigrantes y Gitanes (PACIG) erakundeak euren egitasmo politikoa aurkeztu zuen Bilboko Atzerritartasun egoitzaren aurrean. Bizkaiko PACIG ekintza eta ahots propioak dituen elkarte da. Bertan indarrak batu, lan egin, bidezko ekimenak proposatu eta guztion artean Euskal Herrian bizi garen guztion eskubide politiko, ekonomiko, gizarte edota giza eskubideen alde borrokatzeko prest dauden pertsona guztientzat irekia. Egun honetan, guztion eskubideak aldarrikatu ziren, hainbat proposamen ezberdinetan erregistratuz modu ofizialean.

Orito Maria Bernarda Juajibioy, Camentzá Biya Kabildoko Alkatesa Nagusia, eta bere biloba Jazzlin Camila Luna Figueroaren hilketaren aurkako erabaki ofiziala eta arbuio kolektiboa

Martxoaren 18an, gizon armatuek Maria Bernarda Juajibioy agintari indigena, Camentzá Biya Kabildoko alkatea, hil zuten Kolonbia Hegoaldeko Putumayo departamenduan, baita bertan zen bere urtebeteko biloba ere. Juajibioy indigena babesleku alkatea zen, eskualdeko 15 herri natiboen parte dena. Martxoaren 23an, Kolonbiako Erakunde Nazional Indigenak (ONIC) komunikabide guztiei zuzendutako komunikatu bat kaleratu zuen. Bertan, laguntza eskaintzeaz eta galera hauengatik deitoratzeaz gain, alerta egoera ezartzen zuen Nazio eta Nazioarteko komunitateen aurrean, beren komunitateen osotasun eta babesagatik.

Bira zapatista

EZLNko ordezkari bat, CNInko kideekin batera eta batez ere emakumez osatuta egongo dena, European izango da aurtengo udan.

Lumaltik-eko kideak oso pozik eta hunkituta gaude albistea ezagutu genuenetik, eta hainbat elkarteekin batera elkarlanean ari gara munduaren alde honetatik merezi duten harrera eskaintzeko.

Aurtengo martxoaren 8ko zapatisten hitzak gogora ekarri nahi ditugu:



GUREKIN EZ DAUDENAK.

Haien istorioak.

Haien poz eta tristurak.

Haien minsor eta amorruek.

Haien irri eta malkoak.

Haien presentzia eta absentziak.

Haien bihotzak.

Haien itxaropenak.

Haien duintasuna.

Haien betebeharrak.

Bete zituztenak.

Betetzeaz utzi ditugunak eta guk beteko ditugunak.

Haien oihuak.

eta haien isiluneak.

Isiluneak bereziki.

Nor ote da entzun nahi ez dituenak?

Nor ez da haien hitzekin identifikatzen?

Emakume borrokalariak.

Gu, bai.

Baina, batez ere haiek.

Orain gurekin ez daudenak,

Baina aldi berean gurekin betiko egongo direnak.

Ez dugulako ahazten,

Ez dugulako barkatzen,

Haiekin eta haien omenez borrokatuko gara.

Emakume indigena zapatistak.
2021eko martxoaren 8a.